

**TROIKA, EZ**



- Finantza-ekonomiaren hazkundearen aurrean, badakigu **beste bide bat** hartu behar dugula; **baina pertsonak, etorkizuneko belaunaldiak eta Ama Lurra salbatzeko, eta ez banketxeak.**
- **Zor ordainezinak** hainbat eta hainbat lagun kondenatu ditu langabeziara eta pobrezia; eta zor hori **banketxeena, enpresa handiena eta finantza-erakundeena da** batez ere.
- Nahiz eta bozgorailuak krisitik ateratzen hasiak garela esan, finantza-ekonomia pizten ari dela, **herritarrok eskubide sozial ia guztiak galdu ditugu**, eta lan- eta bizi-baldintzak nabarmen okertu zaizkigu.

## TROIKA, BAI



- Hainbat agente ekonomikoren burugabekeriak eragin du Troikak horrela jokatu beharra; izan ere, agente horiek beren **baliabideen gaintik** bizi izan dira, zegoena baino diru gehiago xahutuz.
- Jakin badakigu hartu diren neurriek **ondorio latzak** eragin dizkietela herritarrei; **baina horixe da kritik ateratzeko bide bakarra**, ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko.
- **Ongizateari** eusteko, nahitaezkoa da **garapen ekonomikoa**; troikak hartu dituenak, beraz, ezinbesteko neurriak dira zerbitzu sozialak, hezkuntza, osasuna eta abar **bermatzeko**.